

Osoko bilkura

Bilbon, 2015eko urtarrilaren 30ean

Urrutia, Andres, euskaltzainburua,
Videgain, Xarles, buruordea,
Kintana, Xabier, idazkaria,
Aleman, Sagrario, diruzaina,
Arejita, Adolfo, Iker sailburua,
Coyos, Jean-Baptiste, Jagon sailburua,
Azkarate, Miren,
Goenaga, Patxi,
Iñigo, Andres,
Kaltzakorta, Jabier,
Oñederra, Miren Lourdes,
Peillen, Txomin,
Sagarna, Andoni,
Toledo, Ana,
Torrealdai, Joan Mari,
Uribarren, Patxi eta
Zalbide, Mikel.

Osa, Erramun,
Urkia, Miriam eta
Zabaleta, Joseba,
zegozkien gaietan.

Ezin etorriak eta ahalak: Aurelia Arkotxak ahala Xarles Videgaini; Jose Irazu «B. Atxaga»k ahala Andres Urru-

tiari; Patxi Salaberrik ahala A. Urrutia-ri; Pello Salaburuk ahala Miren Azkarateri; Patxi Zabaletak ahala Andres Iñigori. Osoko bilkura Bilbon, Euskaltzaindiaren egoitzan hasi da, goizeko 10:00etan, ezkerreko zutabearen ageri diren euskaltzainak bertan direla.

Euskaltzainburuak euskaltzain guztiak agurtu eta etorririkoen zerrenda eta berorien ahalak irakurri ditu. Horiek horrela, quoruma badela egiaztatu ondoren, Euskaltzaindiaren urtarrileko Osoko batzarrari hasiera eman zaio.

Idazkariordeak eguneko programa azaldu du: Osoko batzarra 12:15ean amaitu eta, 12:30ean, Ageriko bilkura egingo da, Manuel Maria Latorre, Jose Antonio Retolaza eta Xabier Aranburu euskaltzain zenduen hilberri txostenak irakurtzeko.

1. Osoko bilkurako (2014-12-19) bilera-agiria onartzea, hala erabakiko balitz

2. orrialdeko (2.1. A letrari aurkezturiko iruzkinak aurkeztu eta erabaki, hala erabakiko balitz) bigarren paragrafoan, Miren Azkaratek «ohargileek eginikoa are hobeto ulertzeko, ohar osoak euskaltzainei eskaintzea eskatu du» esaldia beste honengatik ordeztzea eskatu du: «M. Azkaratek ohargileek eginikoa are hobeto ulertzeko, ohar osoak hileko karpetan jasotzea eskatu du». Oharra onartu da Osoko bilkuran.

Horiek horrela, esaldi horren ostean datorren esaldia aurrekoarekin lotzeko, zertxobait moldatu da: «A. Sagarnak M. Azkarateri ohar horiek euskaltzainei hemendik aurrera helaraziko zaizkiela esan du».

Beste oharrrik egin ez denez, eginiko oharrak barruratzen dituen bilera-agiria onartu da.

2. Ageriko bilkuretako (2014-07-18, 2014-11-29 eta 2014-12-19) bilera-agiriak onartzea, hala erabakiko balitz

2014ko uztailaren 18ko eta azaroaren 29ko bilera-agiriei oharrrik jaso ez dutez, onartu dira. 2014ko abenduaren 19ko bilera-agiriari dagokionez, Andres Iñigok behin-behineko bilera-agiriko 4. orrialdeko laugarren lerroan akats bat antze-man du, «euskaren» agertzen baita «euskararen» beharrean. Lapsus hori zuzentzea onetsi da eta horrela hirugarren bilera-agiri hori ere onartu da.

3. Hiztegi Batua.

3.1. A letrari aurkezturiko iruzkinak, lantaldearen proposamena. Aurreko Osoko bilkuran aztertu gabe utziriko 8. eta 9. orrialdeak, aurkeztu eta erabaki, hala erabakiko balitz. M. Urkiak aztertzeke gelditzen ziren hitzak azaldu ditu.

M. Zalbide *alde anitzeko* hitzaz mintzatu da eta M. Azkaratek ere horren alde egin du. A. Iñigok proposatutako *aspertsio* hitza dela eta, Tx. Peillenek *ihinztatze* forma nahiago duela adierazi du. A. Iñigok eta A. Sagarnak, aldiz, *aspertsio*-ren alde egin dute, *h. ihinztatze* gehitu gabe eta horrela onartu da. P. Urbarren *artotza* eta *arto-saila* hitzen arteko ezberdintasunez mintzatu da. *Alde anitzeko* onartu da, eta *alde egon* ere bai. Zuzenbiderako, *aintzatespen / aintzatetsi* onartzeari buruz, P. Goenagak nahiago luke ez sartzea. A. Arejitak, ordea, bai, eta M. Azkarate erretiratzearen alde agertu da. A. Urrutiak hitz egin du hitz horren premia eta eginiko bidea azaltzeko. Tx. Peillenek esan du, hitzen zuzentasunaren irizpidea hertsiki hartuz gero behintzat, frantses hiztegiko hitz erdiak gaitzetsi beharko lirakekeela. A. Arejitak zuhurtziaz jokatzeko eskatu du. M. Azkaratek askoz erabilera eskasagoko hitz asko sartu ditugula gogorarazi du.

A. Sagarnak arazoaren testuinguru osoa azaldu du, besteak beste normalizatu gabeko hitzen bilakaeraz-eta jardunez. M. L. Oñederra A. Sagarnarekin ados da. Azkenean, *aintzatespen / aintzatetsi* momentuz aldi honetan ez sartzea erabaki da. Bestalde, *adin txikiko* isiltzea, *agresio* kentzea eta *alde batera egin* ez sartzea erabaki da. X. Kintana *almeja* hitzaren aurka mintzatu da, onartu ezineko erdarakada dela iritziz. Horren ordez *txirla* balia dadin proposatu du. M. L. Oñederrak *almeja* hitza onartzearen alde egin du. M. Urkiak, A. Sagarnak, M. Azkaratek eta X. Kintanak hitz egin ondoren, azkenean, *almeja Heg.* markarekin sartzea erabaki da. 8. eta 9. orrialdeetan datozen gainerako hitzei dagokienez, Hiztegi Batuko lantaldeak eginiko proposamenak onartu dira.

Ondoren, 3.3 puntua aztertu da Osoko bilkuran, osterako utziz 3.2. puntuaren aurkezpena eta eztabaida.

3.3. Zerrenda osagarriak (elementu kimikoak, hatzen izenak, jaien izenak, karten izenak, kasu-izenak, mineralak, musika-notak eta zeinuak, -tan bukatuak (pertsonek biziak), zientzia-unitateak eta zodiakoa) aurkeztu. A. Sagarnak eta M. Urkiak, *Euskaltzaindiaren Hiztegiaren* arduradunek, zerrendak aurkeztu eta azaldu dituzte. Horretarako datuak nondik jasoak izan dituzten ere argitu dute. Era berean, zerrenda horiekin aurkeztu beharreko zerrenda guztiak aurkeztu direla azpimarratu dute.

Idazkariordeak, zerrendekin batera datozen txostenak, argibideak jasotzen dituztenak, datozen egunetan euskaltzainei era telematikokoan eskuratuko zaizkiela esan du. Gauzak horrela, oharrak egiteko aldia martxoaren 16ra arte ireki da.

3.3. puntua amaituta, 3.2. aztergaia jorratu da Osoko bilkuran.

3.2. Zerrenda osagarriak (famiaren inguruko saila, izen propioetatik eratorriak eta -(t)ar osaerakoak) aurkezturiko iruzkinak aurkeztu eta erabaki, hala erabakiko balitz. Puntu honi ekin aurretik, Hiztegi Batuko lantaldearen izenean, Andoni Sagarnak, «Hiztegia osatzeko irizpideak direla-eta» izenburua darman idatzia banatu eta irakurri du.

Idatziak *Hiztegi Batuaren* 2. itzuliko sarrerak osatzeko hitz multzoei euskaltzainek egiten ari zaizkien oharren artean, M. Azkarateren proposamen bat du abiapuntu, hitzez hitzeko oharren ikuspegitik harago doana. Funtsean, hitzez hitzeko azterketaren aurretik zenbait irizpide finkatzea proposatzen du M. Azkaratek. A. Sagarnak irakurriko idatziak Hiztegi Batuko lantaldeak gai horri buruz landuak dituen irizpideak jasotzen ditu, besteak beste, beharra vs. erabilerari buruzko haus-

narketa, txikigarriak eratzeko atzizkiak dauzkaten hitzak eta *–ordeko* osaderadunak hiztegian sartzeari buruz.

A. Urrutia euskaltzainburuak eta M. Azkarate euskaltzainak aurkeztu den txostena eskertu dute. Aurkezturiko irizpideen inguruabarrean adostasuna dagoenez, zerrenda osagarriari aurkezturiko iruzkinak aztertu eta erabaki dituzte euskaltzainek. Horrexetarako, A. Sagarnak eta M. Urkiak hamaika orrialdeko «*Hiztegi Batua 2*. itzulia: familia loturak (zerrenda osagarriak)» izenburua daraman txostena aurkeztu dute. Ondorioz, puntu honetan, aztergaietan ageri diren gainerako zerrendak hurrengo osoko bilkuretan aztertuko dira.

Familia loturak aztertzen dituen txosten honen lehenengo lau orrialdeetan, lehendik arauturiko eta oharrik jaso ez duten ehun eta berrogeita sei forma ageri dira; laugarren orrialdearen bigarren zatitik bosgarren orrialdearen hasierara lantaldeak proposaturiko eta oharrik gabe onartu edo «erabil» markarekin jaso diren beste hogeita zazpi forma ageri dira; bosgarren orrialdeak lehendik arauturiko forma osatuak, Osoko bilkurak besterik gabe onarturiko bederatzi forma ageri dira; bosgarren orrialdearen erdialdetik zazpigarren orrialdearen goialdera lantaldeak isiltzeko proposatzen dituen eta oharrik gabe utzitako berrehun eta berrogeita hamasei forma ageri dira. Lantaldeak eginiko proposamen hauek onartu dira Osoko bilkuran.

Zazpigarren orrialdetik hamaikagarren orrialdera M. Azkarate, A. Iñigo, X. Kintana eta P. Uribarren euskaltzain osoek oharreztaturiko hirurogeita hamabi forma ageri dira. Hauek, «*Hiztegi Batua 2*. itzulia: familia loturak» izenburua duen eta gaur banatu den dokumentu batean xeheago jaso dira. Idatzi honetan, ohargilea, aztergaiko sarrera, proposamena, arrazoiak eta *Hiztegi Batuko* lantaldearen iritzia ageri da. Halaber, familia loturei buruz informazio gehigarria ere banatu du lantaldeak. Ohar guztiak aztertzeko denborarik ez dagoenez gero, eginiko iruzkinak hurrengo Osoko bilkuran aztertzeko laga dira.

4. Exonomastika: Europako Antzinateko herriak. Aurkezturiko iruzkinak aurkeztu eta erabaki, hala erabakiko balitz

X. Kintana Exonomastika batzordeburuak esan du ez dela oharrik jaso. Halere, Exonomastika batzordeak uste du zerrendari, *huno zuri*-ren sinonimotzat, *heftalita* hitza erantsi beharko litzaiokeela, Europako beste hizkuntzekin batera jokatzeko. Gehitze hori eta gainerako hitzak ontzat eman dira. A. Iñigok galdetu du ea zertan gelditu den *filistear* / *filistiar* zalantzazko formen arazoa. Izan ere, 2014ko azaroaren 29ko Osoko bilkuran aurkezturiko idatzian (laugarren orrialdean) batzordeak Osoko bilkuraren esku utzi zuen erabakia.

Gai hori hurrengo Osoko bilkuran aztertzea onartu da.

5. Eskuarteakoak.

5.1. Juan Garmendia Larrañaga ohorezko euskaltzainaren heriotzaren berri. Urtarrilaren 8an, Juan Garmendia Larrañaga etnografo eta ohorezko euskaltzaina hil da, Tolosan, 88 urte zituela. Hilberri txostena nork irakurri hurrengoan proposatuko du Zuzendaritzak.

5.2. Donostiako Udalaren eta Euskaltzaindiaren arteko lankidetzahitzarmena. Urtarrilaren 14an bi erakundeek sinatu dute lankidetzahitzarmena. Besteren artean, Euskaltzaindiak indarrean dagoen Donostiako kale izendegiaren berrikuspen osoa egingo du, Akademiak gaur egun darabiltzan irizpideen arabera eta koherentzia zainduz. Era berean, Donostiako leku izenen zerrenda normalizatua eta eguneratua ere egingo du.

Horrez gainera, honako puntu hauek jaso dira hitzarmenean: batetik, Euskaltzaindiak Udaleko Euskara Zerbitzuari laguntza eta aholku ematea, euskararen normalizazioan eta garapenean, bai hizkuntza berari dagokionez, bai eta hizkuntza gizarteratzeko lanetan ere; bestetik, Euskaltzaindiak euskararen estatusari buruzko aholkularitza eta lanak egingo ditu, bereziki, jardunaldiak, bilkurak eta abar, Luis Villasante Euskararen Ikergunea baliatuz, euskararen aurrerapenerako xedea aintzat hartuta; azkenik, Donostiako Udalak, bere aldetik, 25.000 euroko ekarpena egingo dio Euskaltzaindiari hitzarmen honetakoak aurrera eramaten laguntzeko.

5.3. Nafarroako Parlamentuaren eta Euskaltzaindiaren arteko lankidetzahitzarmena. 2014ko urtarrilaren 21ean bi erakundeek izenpetu duten hitzarmenean adierazten den bezala, Nafarroako Parlamentuak euskarazko datu- eta agiri-base bat dauka, Legebiltzarreko zerbitzu teknikoek egindako itzulpen lanak gordetzeko beharrezko ondorioz sortutakoa. Datu-baseak euskarazko terminologia-ko eta parlamentu-lexikoko balio handiko funts bat dauka, kontserbatu eta gaurkotu nahi dena parlamentu-esparruko beste erakunde batzuekin lan eginez.

Beraz, parlamentu-lexikoaren bateratze-lana xede, Nafarroako Parlamentuak Euskaltzaindiaren eskuan jarriko ditu erabilgarri dauden testuak, lexikoaren lematizazioari, etiketatzeari eta kasuko oharpen linguistikoari ekin diezaien. Lan horretan, Eusko Legebiltzarrak eta Arabako, Gipuzkoako eta Bizkaiko Batzar Nagusiek ere parte hartuko dute. Era berean, sinatu den hitzarmen horren ondorioz, Euskaltzaindiak garatzen diharduen Lexikoaren Behatokia izeneko egitasmoa elikatzeko

asmoz, Euskaltzaindiak erabili ahalko ditu Nafarroako Parlamentuak eskuratzen dizkion testuak.

5.4. Jean-Baptiste Battittu Coyos Jagon sailburua, Garapen Kontseiluko Zuzendaritzarako hautagai aditu gisa. A. Urrutia euskaltzainburuak eman du albistearen berri. Osoko bilkuran zorionak ematea erabaki da.

5.5. Azkue Sariak 2014, epaimahaiaren osaketan aldaketa. Patxi Zubizarretak epaimahaiko kide izateari uko egin dionez gero, Literatura Ikerketa batzordea entzun ondoren, Zuzendaritzak Joseba Butron epaimahaiko kide izendatzea proposatu du. Proposamena onartu da Osoko bilkuran.

5.6. Euskararen Herri Hizkeren Atlasaren VI. tomoa. A. Arejita Iker sailburu eta EHAA egitasmoaren zuzendariak atlasaren VI. tomoa jada inprimaturik eta aurkezteko moduan dagoela adierazi du. Era berean, egitasmoaren edukia gizarteratzeko, erakusketa ibiltari bat antolatzeke asmoa dagoela ere esan du. Erakusketa hau eratzeko orduan, Laboral Kutxa finantza-erakundearen laguntza izango du Euskaltzaindiak.

5.7. Axularren Gero liburuaren edizio kritikoa. A. Urrutia euskaltzainburuak adierazi duenez, liburu honen edizio kritikoa paratu du Blanca Urgellek. Edizio hau prestatzeko, Euskaltzaindiak Nafarroako Gobernuaren babesa jaso du. Otsailean edo martxoan Iruñean aurkeztea aurreikusi da.

5.8. Hurrengo bilkura. Euskaltzaindiaren 2015. urteko egutegian zehazten denez, hurrengo Osoko bilkura Gasteizen egingo da. Tokiari eta ordutegiari buruzko argibideak aurrerago emango dira.

6. Azken ordukoak

Ez da egon.

Eta besterik ez dela, 12:15 direnean Osoko bilkura bukatutzat eman da.

Andres Urrutia Badiola,
euskaltzainburua

Xabier Kintana Urriaga,
idazkaria

Ageriko bilkura

Bilbon, 2015eko urtarrilaren 30ean

Manuel Maria Latorre eta Xabier Aranburu euskaltzain
urgazleen eta Jose Antonio Retolaza ohorezko
euskaltzainaren hilberri txostenak

Bilbon, Euskaltzaindiaren egoitzan, eguerdiko 12:30ean, Euskaltzaindiak Ageri-ko bilkura egin du, aurreko urtean hil ziren Manuel Maria Latorre eta Xabier Aranburu euskaltzain urgazleen eta Jose Antonio Retolaza ohorezko euskaltzainaren hilberri txostenak irakurtzeko.

Bildu direnak:

Euskaltzain osoak: Andres Urrutia euskaltzainburua, Xarles Videgain buruordea, Xabier Kintana idazkaria, Sagrario Aleman diruzaina, Adolfo Arejita Iker sailburua, Jean-Baptiste *Battitu* Coyos Jagon sailburua, Miren Azkarate, Patxi Goena-ga, Andres Iñigo, Jabier Kaltzakorta, Jose Luis Lizundia, Miren Lourdes Oñederra, Txomin Peillen, Andoni Sagarna, Ana Toledo, Joan Mari Torrealdai, Patxi Uriba-rrin eta Mikel Zalbide.

Euskaltzain ohorezkoak: Luis Baraiazarra eta Manu Ruiz Urrestarazu.

Euskaltzain urgazleak: Sebas Gartzia eta Pruden Gartzia.

Erramun Osa euskaltzain urgazle eta idazkariordea eta Joseba Zabaleta kudea-tzailea.

Euskaltzaindiko langileak: Lutxi Alberdi eta Amaia Okariz.

Peli Martin Latorre eta Xabier Aranburu euskaltzain urgazleen eta Jose Antonio Retolaza ohorezko euskaltzainaren senideak eta lagunak.

Ekitaldiari Ander Berrojalbiz eta Mainer Lopez musikariek eman diote hasiera, R. M. Azkuek Durangoko txistulari izan zen Karlos Bergaretxeren koaderno batetik jaso zuen *Alkate* soinuarekin. Ondoren, E. Osa idazkariordeak hitza hartu eta go-

gora ekarri du Euskaltzaindian ohikoa dela aurreko urtean hildako euskaltzainak (izan oso, emeritu, ohorezko edo urgazle) urte hasierako lehenbiziko Osoko bilkuraren ondoren gogora ekartzea, Ageriko bilkura batean. Era berean, «Gu hona iritsi bagara, zailtasunak, erraztasun gutxiago izan zituztenak lan egin zutelako izan da, katea... katea ez baita eten eta segida baitu euskararen bilakaeran, bai eta Euskaltzaindiarenean ere» azpimarratu du.

Segidan, Xabier Kintana Euskaltzaindiko idazkariak hitza hartu du. Honek, gaur omenduko diren euskaltzainak izan ditu gogoan. Manuel Maria Latorre arabarra, Jose Antonio Retolaza Bizkaiko semea eta Xabier Aranburu gipuzkoarra, euskararen aldeko lanean aritu izan direla gogora ekarri du. Bat, Gasteizko lehenbiziko ikastola sortzen eta, horrez gainera, Arabako hiriburuan pertsona helduek euskara ikasteko ikastaroak antolatzen, eta geroago, foru diputatu izendatu zutenetik, gure hizkuntzari, eta Euskaltzaindiari ere, ahalik eta laguntza-erraztasunik handienak ematen. Beste bat, gure Herriko kultur ekintza guztien berriak prentsan ematen saiatu zen, eta hirugarrena, haurrentzako komikiak euskaraz prestatzen eta argitaratzen, umek arlo horretan sentitzen zuten hutsunea nolabait betetzen ahaleginduz.

Era berean, hau gehitu du: «gure hizkuntzaz eta kulturaz adore eta bihotz osoaz arduratzen diren erakundeak ditugunean, Peli, Jose Antonio eta Xabierren lan haiek batzuei xume, apal eta, agian, oinarritzkoegi irudi dakizkieke, baina egin ziren denbora eta giro politiko haietan, zinez esan dezakegu oraingo askok uste izan dezaketena baino zailago, nekezago eta maiz arriskugarriagoak ere izaten zirela. Eta holako aitzindarien lanari esker, hain zuzen, etorri da, neurri handiz, oraingo egoera pozgarriago hau».

Idazkariordeak, Peli Martin Latorre euskaltzain urgazlearen hilberri txostena irakurtzeko, Manu Ruiz Urrestarazu ohorezko euskaltzainari hitza eman dio. Honek adierazi duenez, Peli Martin pertsona sentibera zen, eta «bere hiriko eta herriko kulturarekiko grina» gaztetatik sentitu zuen. Txistularia izan zen, eta 15 urtez, 1948tik 1963ra bitartean, Arabako Foru Aldundian miñoi-txistulari jardun zuen. Hor zegoen bitartean, Arabako Miñoien historia idatzi zuen, 1988. urtera arte argitaratu ez zuena. Halaber, M. R. Urrestarazuk egiaztatu ahal izan duenez, Araba Abesbatzaren sortzaileetariko bat ere izan zen eta koru horren kudeaketa ekonomikoa ere eraman zuen, denbora batean.

Euskara maite zuen, «euskotar izatetik euskaldun izatea iristea zuen helburu». Andoni Urrestarazu Mendizabal *Umandi* izan zuen irakasle, eta urte batzuk geroa-

go, Peli Martin bera izan zen euskara irakasle. M. R. Urrestarazuk esan bezala, «1960ko hamarkada, batez ere hamarkada horren bigarren erdia, garrantzi handikoa izan zen Peliren bizitzan. Euskara plazara jalgitzen ari da orduan eta harentzako etorkizun hobea ikusten dugu euskaltzale gehienok. Araban ere etorkizuna euskaldunago dirudi». Izan ere, Arabako herri askotan euskarazko eta euskararen aldeko ekintzak antolatu ziren. Olabide Ikastola ere urte haietan sortu zen eta Peli Martin izan zen bultzatzaileetako bat.

Horiek horrela, 1969ko azaroan, Euskaltzaindiak Peli Martin Latorre euskaltzain urgazle izendatu zuen. 1979tik 1987ra bitartean, Arabako Kulturako diputatu izan zen. Artxibo Probintziala eta museoak sustatu zituen, bai eta Arte Eszenikoen Eskola ere. 1988. urtean hartu zuen erretiroa, baina ez lozorroan gelditzeko, amaitu gabe zeuzkan obrak osatzeko eta argitara ateratzeko baizik, M. Ruiz Urrestarazuk amaitu duenez.

Ander Berrojalbiz eta Maider Lopez musikariek beste pieza bat jo ostean, idazkariordeak hitza Luis Baraiazarra Txertudi ohorezko euskaltzainari eman dio, Jose Antonio Retolazaren hilberri txostena irakur dezan.

Luis Baraiazarrak lanaren zailtasuna aitortu du: «Ez da erraz lerro gutxitan aditzera ematen hain bizitza oparoa. Izen-abizenen atzean Euskal Herriaz eta euskaraz maiteminduriko, euskaltzaleok nekez ahaztuko dugun, gizon bat dago. Gogoan dugu haren izaera fina, harremanetarako atsegina, leiala, besteena errespetatzen eta bereari (gureari) tinko eusten zekiena. Gogoan dugu batez ere zein ongi konpontzen zen haur eta gaztetxo euskaldunekin. Haiekin elkarlanean eraiki nahi zuen etorkizuneko gizarte berria, euskalduna, gure letretan jantzia, eskolatu».

Kili-kili pertsonaiaren eta izen bereko aldizkariaren sortzailea izan zen Retolaza, agerpen horietan hustuz berak zuenik hoberena: Euskal Herri euskaldunaren asmoa; euskaldun abertzale baten mezu garbi eta zorrotza. Hor geratzen dira aldizkaria bera, era askotako liburuxkak... Hor geratzen da, batez ere, agerian ikusten ez dena: orduko haurrengan, gaur egun gizon eta emakume gazteak direnengan, opa-orein zuen herrigintzako eta euskalgintzako hazia.

Horren ondorioz, pertsona eta berak sorturiko pertsonaia bat eginik geratu ziren betiko; horregatik, *Kili-kili eta biok* du izenburua autorea hil ondoren argitaratu den lan autobiografiko bikainak. Retolazaren bizitzaren bestelako kontuak ere izan ditu gogoan: gerra garaiko oroitzapenak, Seminarioko bizimodua, Arrazolan apaiz ibili zeneko garaia, Madrileria Psikopedagogia ikastera joan zenekoa eta abar.

Xabier Aranburu euskaltzain urgazlearen hilberri txostena Jose Mari Iriondo ohorezko euskaltzainak prestatu badu ere, bera Txilen dagoenez gero, Xabier Kintana idazkariak irakurri du.

J. M. Iriondok prestatuturiko idatziak, hildako euskaltzain urgazlearen bizitzaren joan-etorrien kontu emateaz batera, bere izaeraren ezaugarriak eta euskal kulturari eginiko ekarpenak hizpide izan ditu. X. Aranburu kazetaria izan zen eta Donostiako *La Voz de España* egunkarian egin zuen lan. Iriondoren arabera, denetarik egin zuen: nazioarteko saila zaindu, egunkariak herrietan zituen korrespontsalen kronikak bildu eta txukundu, kultura sailerako jasotzen zituenak bateratu... Euskal gizarteaz eta kulturaz egunero zutabe bat idatzi nahi zuela eskatu zion behinola zuzendari jaunari, eta hark: «Baina nahiko gai izango al duzu gero zutabe hori betetzeko?» Ez zuen asko ezagutzen.

1976tik 1977ra, Donostiako Radio Nacional irratian, arrantzaleei buruzko irratsaio bereziak egin zituen. 1976an, *Punto y Hora de Euskal Herria* aldizkaria sortu eta sustatu zuen taldeko kide izan zen. 1977an, ostera, *Deia* egunkaria sortu zen eta Gipuzkoako ordezkari eta erredaktoreburu izendatu zuten. Harrezkero, leku askotan jardun zuen (Donostiako Nazioarteko Zinemaldian prentsa arduradun; Zinemaldiaren aldizkariaren zuzendari; Gipuzkoako Kazetarien Elkarteko presidente; Euskaltzaindiak Iruñean (1984) egin zuen X. Biltzarreko prentsa bulegoko arduradun eta abar). Joxe Mari Iriondoren hitzetan, «garai bateko jendeak nekez ahaztuko du Aranburu langile porrokatuaren arrastoa euskal kazetaritzan».

Ekitaldia, musikak lagunduta, bukatutzat eman aurretik, Andres Urrutia euskaltzainburuak hartu du hitza. Gaur gogora ekarrikoen ekarpenak, nekeak eta konpromisoa izan ditu gogoan, bai eta euskara indarberritzeko halako testigantzei, halako ahaleginei segida emateak daukan garrantziaz ere ohartaraziz.

Ander Berrojalbiz eta Maider Lopez musikariek beste pieza bat jo ostean, 14:00etan bukatutzat eman da Ageriko bilkura.

Andres Urrutia Badiola,
euskaltzainburua

Xabier Kintana Urriaga,
idazkaria